

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakaria Bruselan egingo den Eskualdeetako Lantaldera joango da astearte honetan, EBk ematen dituen eskualdeentzako laguntzei buruz eztabaidatzeko

*Horren aurretik, Durao Barroso Europako Batzordeko presidentearekin bazkalduko du estatuko autonomietako lehendakariekin egingo den bilera batean*

Viernes, 07 de octubre de 2011

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria Bruselara joango da urriaren 10etik 11ra (astelehenea eta asteartea) Europar Batasuneko Eskualdeetako Landatearen (EL) osoko bileran parte hartzeko. Asanblea politiko horretan elkartzen dira tokiko eta eskualdeetako erakundeak erkidegoko politikak eta legeak egiteko prozesuan.

Iragan maitzean estatuan egin ziren hauteskundeetan hautatu ziren autonomia erkidegoetako gainerako lehendakarien moduan, Barcina ELren kide bihurtuko da astearte arratsaldean, 15:00etatik aurrera, osoko bileraren irekiera ekitaldira joan aurretik. Osoko bilera urriaren 12ra arte luzatuko da, [programa eranskinaren](#) arabera.

ELn 2014-2020rako Europako Batzordeak duela gutxi proposatu duen EBko eskualdeentzako laguntzen politika eta gaur egungo krisialdiaren barruan erkidegoko industria-politikaren etorkizuna izango dira bilerko gai nagusiak. Bilera [www.cor.europa.eu](http://www.cor.europa.eu) webgunean jarraitu ahal izango da zuzenean.

Berriki, 2014-2020rako zenbait urtetarako finantzen esparruan, Europako Batzordeak EBko aurrekontuen (baliabide propioak) finantzazioari buruzko proposamenak eta eskualde politikarako gastuen lehentasun nagusiak, nekazaritzarentzako laguntzak eta ikerketa programak aurkeztu zituen. Orain ELri dagokio, Europako eskualde eta herriak ordezkatzeko duen eginkizunaren arabera, neurrien politika multzo horren inguruko iritzia ematea. Erkidegoko argotean "eskualdeetarako paketea" (gaztelaniazko "paquete regional" esaeraren itzulpena) esaten zaie politika horiei.

### Astelehenean, Durao Barrosorekin bazkaria eta Open Days delakoaren irekiera

Bileraren aurretik, astelehen eguerdian, Barcina Lehendakariak José Manuel Durao Barroso Batzordeko presidentearekin bazkalduko du Europako Parlamentuaren egoitzan, Extremadurako Juntak antolatu duen topaketa batean. Autonomia Erkidego hori da, aurrean, batzorde horretako Espainiako ordezkariaren buru. Bazkarian, Balearretako, Errioxako, Andaluziako, Euskal Autonomia Erkidegoko, valentziako Aragoiko,

Murtziako eta kanarietako agintari nagusiak ere izango dira, Extremadurako lehendakariaz gain.

Bazkarian hitz egiteko txanda izango dute, eta Extremadurako lehendakariaren eta Durao Barroso beraren protokoloko mintzaldiez gain, bertaratzen diren autonomia erkidegoetako lehendakariak ere hitz egin eta eztabaidatuko diren gaien (EBren eskualdeko laguntzak eta industria-politika) inguruko ikuspuntua azalduko dute, baita autonomia erkidego bakoitzarentzat interesekoak izan daitezkeen beste gai batzuk ere.

Bazkaria amaitzean, Barcinak astelehen arratsaldeko ELren saioan ere parte hartuko du (15:00etan hasiko da Europako Parlamentuan) [Open days](#) delakoaren bederatzigarren edizioaren irekiera ekitaldian. Open days Europako eskualde eta hirien astea da, Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Lantaldeak batera antolatzen dutena. Irekiera ekitaldiaren buru José Manuel Durao Barroso Europako Batzordeko presidentea, Johannes Hanh eskualde politikako komisarioa, Jerzy Buzek Europako Parlamentuko presidentea eta Mercedes Bresso Eskualdeetako Lantaldeko presidentea izango dira.

Ekitaldiak Europako 200 eskualde baino gehiagotako tokiko eta eskualdeetako 6.000 ordezkari baino gehiago elkartuko ditu Bruselan urriaren 10etik 13ra. Ekitaldiaren izenburua "Europaren etorkizunean inbertitzen: eskualdeak eta hiriak hazkuntza burutsua, iraunkorra eta bateragarria eskaintzen" izango da, eta Europako eskualde eta hiriek Europa 2020 estrategia eta kohesio politikak aplikatzean duten egitekoari buruz hitz egingo dute.

Horrez gain, Open Days delakoaren barruan, Europa osoan zehar 253 ekitaldi egingo direla aurreikusi da iraila eta azaroa bitarte.